Appartient à Madame,
Mesmaker dit Etcheverry
(Jeannette) de Ciboure

INSTITUTION
N.-D. DE BEL-LOC
URT (B.-P.)

# Jeremias profetaren lamentationea

alepl.

Oi nola dagoen hiria bakharric jendes bethea, natione Differenten naussi eta Jabea, qucien erreguina,
nola da alhargun baten pare betan eguiña, hambat probenciataco noble buruçaguia, nola da tributuaren azpirat eroria. Beth.
auhenetan dago gabaz eta bethi nigarra, arralduan jausten çayo ma-celetan beheria, estu adisquideric, bere dolore minean consolatcen duenic, arbuiorat erori da eta bere maiteac mudaturic eguin çaizco ister bequi tristeac. Chimel
atço herrirat joan da Iudas qucis affligitua, ecin jasanez ustarri gogor

eta pissua, egon da gentil pean
bainan pausuric aurquitu estu eguin
artean bere ondicuan dute persequitu
etsayec, eta cruelqui artean dute
hartu etsayec. aleph.
Siongo carriquec ere dute nigar
eguiten, haren bestetarat ceren nihor
ezten ethorcen, atheac irautiac,
haren apheз Sacratuac auhenetan
jarriac, virginec utci jausurat galdu
bere gracia, eta bere doloretan hon-
datu gucia. he.
haren nausi eguin dire haren etsai
dorpheac, haren onez aberastu haren
hiquinçailleac, hainitz hoben eguin
du. hala jaunac haren contra eman
du juyamendu, gathibu eraman
tustz urrun haren haurchoé. Jerusalem,
Jerusalem hiri judeacoa, conbertituriç

erabaz eçac hire Jaincua.
Vau
Siongo alaba ganic, ai! hau da
tristatcia, ilkhi da ossoqui haren
edertassun gucia, haren prince nolleac
eguin dire nola ahari basca gabeac,
exayac ondotic jarraiqui çaitenian
hagorandurie joan dire hequien —
aitcinean. Zaim.
Jerusalem orhoitu da eguin luen
hobenez, baita lehen possediteen cituen
ontassunez, laguntças gabetua,
exayec ditenean hartu bere populua,
axequin cruel batequin diote bequiratu
eta haren Sabatoco Bestez dire trufatu
heth
Jerusalemec eguin du nombre gabe
bekhatu, hargatic jaunac bere coleran
du desterratu, orai du mespreçatçen

lehen nore ere baitçuen quehienic
laudatçen, guciec ikhussi dute
haren ahalqueria, eta suspiraz
guibelerat itçuli du bissaja.

## Theth

Bere oinetan ere tu hasqueriäc
aquertu, eta harençat cegoen finas,
esta oraitu gucis beheratua,
bere gaitcean nihortas ezta conso-
latua, oi! jauna ikhus çaçu ene
dolore minãc, eta nola den exaja
Seperbio eguiña. Jerusalem
Jerusalem hire judeacua,
Conbertituric irabazeçac here Saincoa

## Joth

exai cruelaren hisi eta violenciac
eraman tu haren gauça preciatu
guciac, hala çuen mereci,
Lekhu Sainduan çuen profanatcen
icusi, populu debecatua templutic
passatcerat utci, ditu lekhu Saindu
barrenean Sartcerat. Caph.
haren populu herratua bethi dago
auhenez, bicitceco jantharic nihon
ecin içanez, ogui pisca batean,
gauçaric baliosenac eman tuzte bere
gosseteau, jauna yar çaite ene
Consideratcen, icusaçu certaraino ez
deus eguiña naicen. Lamet.
oi çuec bide hortaric passatcen
caretenac, mirexiric jar çaiteste
ikhusten ene penac, othe da doloreric
ene dolorequin compara ditequenic,
Jaunac erran çuen guisa bere furian
Cela, billuci nau mendaigñetan
mahastiac beçala. Mem.
Ceru goratican jaunac ene heçurretarat
su bat igorri du colpez ene gaztigatcerat

arte hedatutaric. guibelerat
etchatu nauc ornac trebesaturic,
eçarri nau aurhencan gucis desolatua
egunac iragaten tut hiraz akha-
batuac. Nun.
Ene hobenen ustarri pissu eta
gogorrac, beran eraman dasquit ene
indar aphurrac, Jaunac bere coleran
hetaz gathe bat eguinic eman
darot lepoan, flacaturic eçarri
nau jaunac escu batez, non espai-
naiz itçulico mendean. Jerusalem,
Jerusalem hiri Judueacoa Con-
vertituric irabaz eçac hire Jaincoa.
heth.
Jaunac deliberatu du Jerusalencoac
behar tuella morraillac arrasatu
Jendoac, Cordela du hedatu
desequin artean ezdu escua guibelatu,

orduan erori dire querice Campaçoac
eta bristequi desequin morroilla
Carnecoac. Theth.
haren atheac lurrean barna dire
Sarthuac, eta hequin guibelcco
barrac desterratuac, erregue eta
princeac. gentillperat desterratu
dire dohacabeac, legueric gabe bici
da eta bicioneric eztute prophetec
içan Jaincoac igorriric. Jod.
Lurrean jarriric daude Cahar
ohoratuac bihotz minaren podorez,
mutu errendatuac, ciliciaz betheac,
buruac ere dituste herrauxes esta-
liac, Jerusalengo nescatchec
beheratu buruac, eta beguiac dituste
Lurrerat turnatuac. Caph.
Beguiac flacatu caizquit nigarr
podorez, ene barne gucia da altaratu

dolores, bihotça çait iraucé,
Jerusalem desequiña dudanean
icussi, ikhussi ditudanean haur-
cho bulharrecoac, carriketan —
gossez hillac, orriac gachoac.
Jerusalem, Jerusalem, hiri —
Judeacua, Convertituric ziabaz
eçac here Jaincoa.

Lamet

haur gachoec bere amei galde —
guiten ciotén, bicitceco behar
Cena, ekhar ciecotela. ama nou
da oguia, egarriaren hiltceco nou
dugu edaria, martiric becala
Ceren Colpez hiltcen placetan,
arquen hatsac arthiquitcen bere
amei alçotan. Mem.
Jerusalemgo alaba noren haiz
idurico, ceri haut hobequienic

othe Comparatceco, virgina
Siongoa, Ceren pare da dolore
hire bihotceçoa, itchassoa beçain
handi dun hire bihotz miña,
norc hiri emanen daron adisquidera
miña. Nun.
Prophetec equin dauzquiñe —
prophecia falsoac, ikhussi tiñe
hirecat bicione erhoac, behar
hincen arguitu, baina ez tau —
quiñe hire bekhatuac aguertu,
içatu tiñe hiretcat guecurrezco
ametxac ikhussi joanen cirela
hire etxai borthitçac. Lamet.
hire aldian iragan diren jende
guciac, egon ditun hire beha
espantuan jarriac; jo ditiñe
escuac, Christu Suerte bat equin
erabilli burruba, ciotela hauda

hiri eder guzizco hura,
huntarat bilhatu da mundu-
aren placera, Ierusalem,
Ierusalem hiri judeacoa,
Convertituzi zabaz, eçac here
Iaincoa,

Fina

philosophe

INSTITUTION
N.-D. DE BEL-LOC
URT (B.-P.)

ita dico vobis, magis gaudium erit in
Cœlo super uno peccatore pænitentiam
agente,
quam super nonaginta novem justis,
qui non indigent pænitentia.

Erraiten dautçuet orobat, alegrantçia
gehiago içanen dela Çeruan, ni ganat çin-
çinki itzultzen den bekhatoros baten
gainean, lauretan-hogoi-eta-hemeretçi
justuren gainean baino. S. Luc
C. 15. —

hórreta ibardexi çioten j. toc, g. ac bekha-
tóreac amulxuki hartzen, eta hekin
jaten çuelacotz, gurguratu çiren escriba
eta fariseac, çiotelarik elkharrequi, gi[illegible]
hunec nola hartzen ditun bici gaichtoco
giçonac, eta hekin jaten duen: erraiten
dautçuet orobat, plazcatentçia gehiago
içanen dela Çeruan, bekhatoros çin-çinki
urrikitu baten gainean, lauretan-hogoi-
eta-hemeretçi justuren gainean baino:
( magis gaudium erit in Cœlo &c.) ol! çoin
handia den Jainco baten urrikaltzapena
Bekhatoreen alderat! egiazki mundurat
ez da ethorri galduac ginenean bilhatzerat
baicic, bekhatuaz hilac ginenean phiztzerat,
Bekhatuac harren ganic barganatu eta
hainitz urrundu gaintuenenen sinheste
eta maitetasun egiazco batun lokharier Jainco-
Batekin juntatzecotzat baicic. itçul
gaiten beraz harren ganat, erraiten daucu
joel profetac, ceren jauna pairacorra baita,
ongi-gilea eta aberaxa urricaltzapenez
B. ibur. çatezte harren ganat, bainan

Bihur çaitezte bihotz guciaz, çeren çorion
handiena baita harren ganat itzultcea
1. pars: bainan çorion harren içaiteco
bihotz guciaz itzuli behar da. 2a. pars

Ave maria

Orai beretic jaincoa ganat çin-çinki itzultcea
çoin çorion handia den seguratuac içaite-
coçat, idec eta irakhur ditzagun liburu
saînduac; gure ona bilhatzen dugu, liburu
sainduec erraten daucute, bekhatupean
jaincoaren ganic urrun ez daitekela
dohaxu içan, verthute choilac ditzakeyela
ichur gure arimetara phoztura ichilac,
jaunaren uztaria, uztarc agradagaria dela,
jaincoarekin eremana den egun batec,
munduco jauregiric ederenean eremanac diren
milla urthec baino gehiago balio duela; erraiten
daucute oraino, munduaren gogara egitea,
gurguratiric baicen egiten ez duen nausi
gogor baten gogara egitea dela, mundua mig
esker gabea dela, eta harri axegin egiteco
hatzen diren nekheac errhexki ahantzten
dituela; aitzitic, jaincoaren gogara egitea,
nausi eskerdun eta ezti baten gogara egitea dela;
harren aitcinean ez dela içan, ez içanen
behinere mereciric galduric, salvamenduco
egitecoan hartcea, nekhatzea, sari segur
batentçat nekhatcea dela; onthasunic
goreenac içanen direla sainduen aldeac
onthasun heyec bethi iraunen dutela, eta
ez direla secula akhabatuco.

Orai, jaincoaren mehachuen
eta harren gaztiguen beldur gira.

Liburu berec erraten daucute, bekhatutan
biçitcea, urriciric gabe hiltzeco meinean
emaitcea dela, jaincoaren juyamenduac
ikharagarriac içanen direla, hura biçian
utci dutenentzat; bekhatutan hiltzen den
arima baten çoria, bertze biçian bethi doha-
cabea içanen dela, supliciozco secula osso bat
içanen dela harren oldarkeriaren gaztigua;
erraiten deraucute, jaunac bekhatorea
eta harren bekhatua abhorritzen dituela,
guretçat hobiago çaitekela, egundaino ez
bagine içan, bekhatutan biçitcea baino:
liburu saindu hec ez çaizkigu baratcen
erraitetic, bekhatorea aurkhitzen den heguna,
hegin aurhendagarri bat dela, eta hartan
dagono, eremaiten duela biçi bat, jaincoaz
gaixexia, giçonez arbuyatua, eta berac
jassain ez deçakeyena, bere bekhatuac
bihotzean egiten diozcan hasikiez; eta ez
duela behin ere bere barnean soseguric
eta bakeric aurkituco, harren bihotcea
jaincoa ganat itzuli içen den ordu hartan
baicic! Egiazki çer nahasturac, çer hasa-
lldurac eta griñac ez dira atheratcen, jainco-
arekin ongi ez den arima baten çolatu:
çer gogueta hiragarria bekhatorearentçat,
orhoitzen denean jaincoaren haur içaiteco
çuçena galdu duela, eta ifernurat jausteco
mein-meinean dela. Conciençiaren borroca
horietan badoha ikhusgarriz ikhusgarri,
axeginez axegin, leçor leçe, bere barneco
çimurcuen eztitzeco; bainan deus ere ez
du aurkhitzen fagga deçakeyenic, eta
norat nahi itzul dadin, ez dira nabaditzen
conciencia khechu baten ochu eta hausiki
saminac baicen. hori da, g, ac, sobera

Baiçen frogatu ez duguna, gure Coriona
jaincoaz landa eta axegin hobindune-
tan bilhatu nahi içan dugun aldi gucie-
tan bilhatu nahi içan dugun aldiguciz
Ecen oraidinocoan beçala biciz, erranen
dugu bici dohaxuago bat? gure jaincoa
utzi dugunean gogorago bilhacatu gira?
munduaren alder hartu dugunean, aurkita
dugu hartan gure Coriona? gure axegin,
eta dostetan gueçien erdian aurkhitu ahal
içan ditugu Conçienciaren bakea eta
discanxua? aitzitic, jaincoac gure barneco-
harraren hausikiac ez ditu gehiago samindu,
gure axegin eta alegrantzien erdian berean
gu gehiago tholiyatzeco? bekhatuco bidetan
juanez, bide urkhagarri eta gaitzetan ez
gira ibili? gure nahicarac egin, gure pasion-
cac asse ditugunean, passione hec azkenian
ez çaizkigu bethi nardagarriago içan, avantai-
los baino? gure bihotza jaincoaren ganic
urrunduric, gure nahicaren arabera biçit-
zeco, bihotz harc berac ez dauçu erran ez
çela egina jaincoarentçat baiçic, eta egiazco
bake eta Corionic ez çinecakela aurkhi hartan
baiçic? horela nahi içan duçu ene jaincoa,
dio S. Agustinec arima bekhatorosa bera
içan çadin bere suplicioa; ô gure passionen
gathibu garen ondicozcoac, çer irabaci dugu
Bada hec segituric? çer sari içan dugu
Bada mundua ganic, hambat penarekin eta
gure jaincoa arbuyaturic harén gogara
eginic? çer gelditzen çaicu bada gure
borimaren eta salvamenduaren caltetan
hartu ditugun axeginetaric? çer gelditzen
çayo hordiari, yan edan soberanio hetaric,
baicic ere edan soberaz çentzuya galduric,
abereac baino bachuago eginic duen
desohorea? çer gelditzen çayo lohiari,

bere haragizco axegin licunetaric ahalger
gorritzen duen laidoa baicic? çer gelditzen
çayote gaineraco bekhatoreei, jaincoarin
manuac bethi infarraturic, eta harren gaixestu-
ran bethi biciric, ikharatzen ditucen eta ifernua
mereciaraztin dioten bekhatuz cargatua den
Conçiencia bat baicic? horra, g. ac, guc nahi
gaberic gure barnetan nabaditzen ditugun
arrancura minac, bekhatu huntan dastaditza-
kegun eztitasun faltxu gucietarat kharas-
tasuna ichiartzen dutenac.

Ecaguta, deçagun beraz
g. ac çoin caltecor den bekhatoros gisan
biçitzea, jaincoaren ganic urrun bakeric
eta descanxuric gabe, eta orai danic biçiz
gambia gaiten, eta çin-çinki itzul gure
jaincoa ganat. josuec judiuer minki sentia-
raztic beren hoben handiac eta hec beren
eginbidérat erakhartzeco, ez çuen bide hoberic
aurkhitu, hec jaincoari agindu ciotenaz orhoit-
eta hartaz bertzela egin çutenaz orhoit-
araztea baiçic. ez çinuten bada çuhoronec
hautatu jaincoa çuen nausitzat, erran
ciotan, eta hautatu çinutenean, ez çinioten
hitz eman leyalki cerbitzaturen çinutela
eta harren ganic behinere bereciren ez
çinetela? guc orobat, ez dugu écagutu eta
hartu jaincoa gure nausi gorenarentçat?
eta ez diogu hitz eman harri choilki obedi-
turen giniozela? gure bathayoan ukhatu
ginuen munduaz eta harren axeginez, hartan
çin-çina egin ginuen evangelioaren irakh-
ispenaren arabera biciço ginela, bekhatua
abhorritzuren ginuela, harren paradetaric
aldaraturen ginela, harren ohidura mendena-
eitziren ginituela, horiec guciac eliçan
aldarearen oinetan hitz eman ditugu

eta agintza Çin-Çin horien azpian hartu
eta eman gaituzte bertze sinheste dunen
Lizzoan, bizkitartean Cer egin dugu? ah!
hitz, agintza eta Çin-çin hautaz bertzela.

Gure jaincoa utzi dugu,
arbuyatu harren graciac, farfatu harren
Sacramenduac, hautsi harren manuac,
Bekhatuco bidetan nekhatu becala gira,
Lurra gure egiarco herria becala iduki
dugu, eta behere huntaco onthasunac
Balkharric dohaxu egin gintzaketenac, ez
dugu bertze legeric segitu gure passionena
baiçic, bertze nausiric gure buruentzatheco
maitetasuna baiçic, bertze gidariric gure
jaidura gaichtoa baiçic. bairran azkenean
Cer baliatu Cairkigu horiec guciac? Certan
içan gira dohaxago? Cer aurkhitzen dugu
orai gure conciencian, egin ditugun bekhatuec
emaiten daucuten hasaldura bethierreco bat?
Cer aurkhitzen dugu gure escuetan obra
onez huxac? Cer ikhusten dugu dembora
iraganean hobenpean ereman ditugun urthe
hainitzac? orai aphur huntan, biçi alfer
eta hoben-dun bat? Ahorkisunean Corigaitz
bat bethe secula gucian? Cer aurkhitzen
dugu Ceruan? millaldiz idoistatu dugun jainco,
eta millaldiz hasserratu dugun juye ikharagarri
bat? Cer aurkhitzen dugu lurrean galdu
dugun dembora bat, eta laster akhabatzerat
dohan biçi bat? Cer aurkhitzen dugu ifernuan
Leze batez, gure bekhatu içigarriez gehiago
barnatu ditugunac.

Horra, g. ac, horra jaincoa
ganat Çin-cinki itzultzen ez direnen hegina
Corigaitz huntaz egun hunkituac içan
gaitezen, eutz ditzagun bekhatoros bideac saind-
uen videac hartzeco. oraidinocoan ez bagira
Biçiçan, bekhatupean dohaxu içaitecotzat

Baiçi, orai danic has gaitezen biçitzen justuen
Corionaz dohaxu egiteco; bihur gaitecen Çin-
cinki jauna ganat; gure bihotzac harentzat
dira eginac. Lurra guretzat desterruco lekhu
bat. Cerua da gure lekhua, dembora da hartaz
orhoit gaitezen, eta orhoit gaitezen funski
eta bihotz guçiaz.

goguetta hauc egin ditzagun
gure bekhatuez urriki minetan sartzeco,
hortaracotz gogorat ekhar deçagun bekhaturen
ixusitassuna, jaincoac harrentzat duen higui-
ntza, apheinduac Cairçon suplicioac, eta Salva-
tzailleac harren desegiteco pairatu dituenac
orhoit gaiten gure eskergabetasunaren meu-
ruaz, j. C. tec merecitu daucun gracia gaind-
izcoa arbuyaturic, eta Cer Corigaitz dagoon
guretzat ez bagira probetchatzen; urrikitan
sar gaiten beraz, gure jaincoarekin baketzeco;
altcha, heda ditzagun Cerurat gure marrasko
erraiten daucu michee profetac, jo ditzagun
gure bulharrac publicanoac beçala, erakhutz
deçagun, gure bihotza delacotz leken hoben-
duna, hura içan behar dela leken gaztigatua,
hautz deçagun urriki min batez; arimaren
kharastasunean erabil ditzagun alegrantzia
Coro batean ereman ditugun urtheac, horrela
gure baithan soraraçico dugu, gure urrikia
Çina eta datzala dela erakhuxi izen duen
tristeçia saindu hura.

Tristeçia saindu hura, diot,
Ecen apostoluaren arabera bi gissa badira:
bat jaincoaren arabiracoa, urriki salsagarri
hura irakhusten duena; (quæ secundum
deum tristitia est, pænitentiam in salutem
stabilem operatur.) Bertzea, mundutarrena,
eta heriova emaiten duena. (Sæculi autem tristitia
mortem operatur) jaincoarem arabiracoa, eta
Ceren jaincoa damustatu den urriki minelc

beldu dina, eçagutzen da bere ondorioetaric;
S. Bernatec hitz hautan bildu ditueneetaric.
1 operatur sollicitudinem, indignationem, tim-
orem, desiderium, imitationem, & vindictam;
lehena da, eya jaincoa ceren damustatu
dugun tristecia dourriki hare emaiten
daucunotz artha eta jarraitza lehiatu bat
gure salvamenduarentzat. 2. garrena, eya
phitzguna, samurguya egiarco bat emaiten
daucunetz gure buruen contra. 3.a eya jain-
coaren juyamenduen beldurtassun salvagarri
bat emaiten daucunetz. 4.a eya gure baithan
soraraten duenetz, jaincoaren maithatzeco
eta cerbitzatzeco gutiçia kharxu bat. 5.a eya
phizten gaituenetz, jaincoa maite eta cerv-
itzatzen dutenen beçala egiterat. 6.a ekartzen
gaituenean, gure haragia garrazki ceratuz,
egin diozkagun idoyentzat, jainco hassarratu-
harren maltxatzerat. tristeciac harren ondorio
hautaric, eya gure jaincoa ganat itzultzea
egiazcoa denetz eta cina dugu eçagutuco.

Baldin jaincoaren han-
ditassun, ontassun, eta harren juyamenduen
garraztassunac ez badira gai gure hunkitzeco
froga deçagun, eya gure porhayotassunacen
gogorat ekhartzeac ez gaituenetz batere
gurthuco: ondikotzcoa naicena erran diozagutun
naiz gure buruei, galdu dut bada adimen-
dua arras, gracia galdu dudanean deusec
ere ez naie hunkitzen, ez ene jaincoaren
amodioac, ez beldurrac, ez ongi-eginec, ez etere
gastiguec. lurreco har bat atrebitu da, ceru
lurren jaun gorenari oldartzerat, eta
ene atrebentziaz ez dut bada urrikiric içan;
millaldiz arbuyatu, millaldiz idoistatu dut
bere bicia enetzat eman duena, eta eskerg-
abetassun huin beltzaz ez naiz bada

harrituco? Ifernuaren bazterrean ikhusten
naiz; aurkitzen naicen hegin ondicozcoan
hil naiteke, beldurrez ez naiz bada hormatuco?
gogueta hauc ez nituen egiten ene jaincoa
damustatzen nuenean, eginic ere passionea
orduan hain cen bortitza, ez baitzen miri-
teco hartaz garhaitua içanic ere: bainan
orai odol hotzean ikhasten tut egia hauc, eta
ez naute bada hunkituco? cer bada, o ene
jaincoa, galdua naiz bada? ez ducu bada gehiago
urrikaltzapenic enetzat? arbuyatu nauçu bada
bethicotz? hortacoac içan behar dire, g. ac,
hortacoac içan behar dire, bekhatoros baten
gogueta hiragarri eta lotsagarriac, orhoitcen
denean bekhatuec hegin huin ondicozcorat
ecarri duten, eta hetaric atheratzeco enayuric
batere egiten ez duenarenac.

Itzultic, jaincoa ganat
cin-cinki bihurtzen denac cer barneco phozt-
urac ez ditu nabaditzen bere barnean? urriki
minez bihotza cauthua duenean, barneco
gantzu[illegible] ezti batec, alegrantziaz gauditzen
du: bere jaincoaren aitzinean nigarrez dagoenean,
dastatzen tu aixegin batzu, bekhatuyean
hartu cituenez miletan handiagoac, harren
arimaco çauriac edertzen, ceratzen ditustenac:
baldin urriki minez nigarriz dagoenean, beldurrez
oraino harren exai den, beldurrez harren çuçen-
tassunaren garraztassunen, phozcalentzia
huin handi, fidantzia huin descantzari batez
goçatzen bada, nolacoa içanen da harren ari-
maco bakea, jaincoaren aitzinean agertzen
denean harren maithia beçala; baldin hambat
urrikaltzapenekin hartzen baduçu cure gathiba
oldarcari bat, cer amultassun ez dioçu
erakhusico bere eginbidean sarthu den haur
arras cure aspian dagoen bati.

Hortacoac dire, g. ac,

alde batetic, bekhatoros urrikigabe bat —
ahalgetu eta loxatu behar duten bekhurtasun
eta hurbil eximoresco goguetac, eta bertze
aldetic, jaincoa ganat Cin-Cinez itzultzen den
bat, phiztu, gothortu behar duten alegranciazcoac
bainan Corion handia bada jaincoa ganat
bekhatutic itzultzea, ikhusi behar dugu, —
Corion harren dastatzeco nola itzuli behar
'Den

2ª pars

Egiazco itzultze batentzat hirur gissa
behar dire, gogaren gambiamendu, bihotzarena
Eta obrena. 1º gure gogoa gambiatu behar
du, (facite vobis spiritum novum) dio Spiritu
sainduac bekhatorea arras munditarra Cena,
arras mundua utzi duen giristino egiazco bat
bilhacatu behar da, erran nahi da mundoco
axegin, dostetá, ikhusgarri profano, plaza,
dantzá, onthasunen haicekeria, ohorereco khe-
heyen, licunkeria, bere buruaren [redacted]
maitetasunarentzatiaco goguetá guciac
utzi behar dituela; erran nahi da bekh-
atuari ez dioyela bekhatu behar aitzinean
Bezala, bainan bai sinheste Cin batekin,
erakhutz diocon harren beltztassuna, —
jaincoari egiten dioyen idoya, eta mereçia-
razten diozcan supliciuac.

Bai, gac, diot berriz
Ere, jaincoa ganat gure bihurtzea egiazcoa
eta Çina içaiteco, gure gogoa gambiatu
behar du Ceren goguetá gaichtoac gaichtoac
ren baitute bihotza goguetá gaichtoez
eurten hassi behar da berar; arbuyatu behar
ditugu oraidinocan preçatu ditugunac, eta
preçatu arbuyatu ditugunac. oraidinocan
dohakuitzat iduki ditugu onthasun dunac,
ohore dunac, dohakuitzat alegera gogara direnac;
gure uste haue hambat ere egiatzat ichiki
ditugu; bainan gure baitan Cinki sartuac
bagira, gezur handitzat hartu behar ditugu.
aitzitic, J.C. kin dohaxu iduki behar ditugu,
gogoz ez kumes direnac, dohaxu arbuyatuac
eta ahalgeatuac direnac, dohaxu exkecabetan
eta nigarretan daudecenac. oraidinocan uste
ginuen, munducotzat baicen ez ginela eginac
onthasun egiteco; bainan egiazki jaincoa ganat
aldatuac bagira, osoki seguratuac içan behar
gira, lurrean bitzea, lur munthoin bat
bitzea dela, lehen haice khualdiac gure
buruan gainera lehertuco duna; aitzitic
Lurrean gutiçiatzeco den onthasun bakharra,
berthutea dela, nahicaren egiteco, axeginen hart-
zeco arthac, artha haice eta ahalkagarriac
direla; aitzitic munduco irria, trufac, escarnioac
idoyac ongi hartzea, exyari barkhatzea, harren
maithatzea dela erretigioneco phondu burucagia;
eta huntan hutz egiten badugu, jaincoac
arbuyatuco gaituela. oraidinocoan munduaren
errakicunaren beldurrez ongia egitetic baratu
gira; bainan ongi gambiatuac bagira, munduac
Cerentzat gaukitzan munduac Cer dioyen gutaz
guti achola içanen dugu; mundua, dio S. pauloc
guretzat gurutzetua içan behar, eta gu
munduarentzat, erran nahi da, mundua arbuyatu
behar dugula, munduac gu eginen gaituen
Beçala, eta ez içan harrentzat erachotatasu-
nic baiçen, harc guretzat içanen ez duen
Beçala. 2ºric

2 jaincoa ganat Çinki itzultzecotz,
bihotzez gambiatu behar da. joel profetac
guçia jaincoaz argitua, aitzinetic ikhusten
Cuelacotz, ethorkisunean Combat urriki
falxu içanen Cen, manatzen du giçonac

Bihotzaren Çolatic bihur ditecçin jaincoa ganat. horrela eguinac içaiteco, dio jaincozco giçon harc, hauxk aiezkitzue çuen bihotzac, eta ez çuen soinecoac. (Scindite corda vestra, et non vestimenta vestra) erran nahi da jaincoa ganic ardietxi behar dugula graciazco bihotz bat, bekhatuzco bihotz harentzat. Bihotz viçi eta guri bat, bihotz gogor eta harrizco harentzat, bihotz garbi eta çuçen bat, bihotz lohi eta makhur harentzat. jaincoac ez du onhesten mudatze achaleticaco bat, campoa gambiatzen duena, eta ez barnea; nahi du giçon bertze bat egina, bihotzetic içandadin egina, munduaren maitetasuna arras utz eta arbuya diçan, eta geroago gehiago finca dadin jaincoarenean.

Çure Bihotzac, bekatutzeac,

Çaitu urrundu jaincoaganic; çure bihotzac jaincoaren laguntzarekin, behar çaitu harrenganat hurbildu. çure bihotzac hartu içan du axegin hobendun bat, çure bihotzean içan behar hartaz urriki min eta kharaxs bat. Egiazki çein nahi den gissas gambia dadin bekhatorea, gogoratu eta bihotzerat behar ditu bi gauça egin tuen bekhatuac abhorritzecotzat, eta domustatu duen jaincoa, harren maitatzeco, eta harrekin bakotzeco: bada horiec funsgabecoac dira, ez badira bihotzeticacoac. Orai nahi nahi duçu jakin eya çure urrikia çina eta egiazcoa denetz? jautz çaite çure bihotzera, ongi mira, lacha aizkitzu harren passionen coropiloac. Lehenago mundua ixtuki maite çinuen, orai ez duçu gehiago maite? lehenago jinduz inhusia, laudingatua, laudatua, ohoratua

içaitea bilhatzen çinuen, orai arras bihotzetic utzi tutzu ohorezco amets eta khe haize horiec? lehenago nihori ez çinioyen amorio egin nahi, çure buruya bertzeac baino gehiago çinaducan, orai jainco hambat aphaldu den harren bidear baçohaçi, arbuyatzen duçu çure burua, askentzat daucaçu? lehenago axegin liçun heyei, dosteta hobendun heyei emana çinen, bi bita, buruzbaruca perilosheegatzen çint-uen presuna harrekin bilhatzen çintuen, bilkuya profano, plaça, dantza, dantzaco-lekhu hec hantatzen çintuen, çuretzat hordiatzeco parada batzu çiren ostaluhec, aitzinean arnegari, burhogile, blasfemari çinen, orai utzi ditutzu horiec guciac, guçiur ukho egin diocute, orai maite duçu bakhartasuna, cebatzen duçu çure haragia, lehenago milla çotzekia bilhatzen çinuen, çurea ez çin onthasun harren atchikitzeco, orai bihurtzen dioçu bere yabeari? lehenago sorhayo çinen erromesen beharrenatzerat, orai laguntzen duçu erromes hura, emaiten dioçu gogotic? bada hauc guciac behar dire bekhatuen urrikia egiazcoa içaitecotzat, eta bihotzeticacoa, bihotz hura ossoki eta arras gambiatua içan behar da.

3ti jaincoa ganaco itzultzea egiazcoa içaitecotzat, obraz gambiatu behar da, obraz frogatu behar da, ez dela gehiago lehen çena eta eman bici bat, aitzinean mundutarra bezan, giristinozco bat, hori da apostoluac manatzen daucuna hitz hautaz: nola lehenago çuen gorphutza baliatu baitutçue bekhatu egiteco, orai balia çaçue çuen saindutzeco; erran nahi da, lehenago ahal guçiac egiten çintuzten

Cuen galtzeco, orai ez decagula deus ere
guphidez salbatzeco; lehenago ez Cintuzten
Cuen ossasuna pendra beldur, jan edan
Sobera hordikeria hetar, orai ez beldur
izan hura tipi, bariatuz, yivikia eginez
Cuen haragia, harren dakien gaichtoac hiciz;
Lehenago ez Cinuten soberetan arigon,
dostetan hetan erimaiten, galtzen Cinuten
dembora ondicozco hura, orai ez Soberetz
eramateaz eguneran Combait oren, Cuen
jaincoaz eta Cuen salvamenduaz othoitzen;
Lehenago irabaçi Cikhin bat gatic hausten
Cinuten Cuen adiskideri re hobenekin,
orai eztz acue jaincoa gatic, galtzen
Caituzten jinde hura. lehenago beharrac
eromesac Lagundu behar bidean, hu adi-
bat eutziri Cuen dirua Chahutzen
Cinuten soinuo, edergailu, apahaindura
maikegatu hetan; orai man eta gastaçaque
behar hiyen laguntzen; lehenago orenac
mintuzaz egun ossoac eramaiten Cintuzten
hara huntan, jocotan, ikhusgarri hetan,
orai eriman aitzue othoitzean dorocionan
hitz batez, orduan deus ez Cauntzun
Sobera munduco, orai deus ez izan Sobera
jaincoarentzat. hori erran nahi dute
apostoluaren hitzec, eta hortacoac dire
bekhatuen urriki Çin-Çin baten ondorioac
gambiatu behartu, gogoa, bihotza, eta
obrac.

horren gatic ere, ispiritu saindua
mintzo delari gicon gambiatu batez,
mintzo da Creatura berri batez beçala;
Ceren harren baithan, harren gogo, bihotz
Eta obretan berritasun iderrezgarri bat

Egiten baita. ez da gehiago hura, bertze
gicon bat da, gicon berri bat, guciac
gambiatuac dire harren baithan, ez da
deus ikhusten Çaharric, nondic nahi beha
dakion, jinde berribatuarekhitzen da. bertze
Begi batzu ditu, fede Çin baten begi Corht-
otzac, egiaren Ceruco argiac ikhusten dituz-
nac, eta saindutasunaren eta berthutearen
jaincorco edertasunac. bertze beharriac
ditu beharri atzarri eta erneac, jaincoaren
hitzaren aditzeco, eta harren arthoski
atchikitzeco Çabalduac daudecenac. bertze
gosturi du arimaco gaucen dastatzeco
gostua. harren beldurra, bekhatu egin eta
jaincoa damusta beldurra; harren hassa-
rra, jaunaren loriaco kharra; harren mina,
bekhatuen dolua; harren phozcarentzia,
Conçienciaren bakea; harren amodioa,
jaincoaren eta lagunaren maitatassuna;
harren higuintza, bekhatuaren abhorri-
mendua; harren esperantza Ceruco
onthasunen higurikia; harren lanac
obra-onac; harren dostetac, jaunaren
Laudorioac; harren biçia, devocionezco
biçi bat. erran daitke harren natura
guçia gambiatua dela. horra, gac,
Bekhatore jaincoa ganat Çin-Çinki
itzulia denaren idura, eta horra
dembora berean gureacenaren moldea.

hau decagun beraz
Egun danic biçiz mudatze Egiazco
hura, atteha gaiten izutzen gaituzten
gure passionez gorago, jaincoaren graciez
duzan dein arima bakh hegin lastimagari

gogoratur; ecarthic gaitzan jaunaren
urrikaltzapenen oinetara, eros ditzagun
urriki min batez, hobenguean eriman
ditugun egun dohacabeac; nork daki jaincoac
ez duenetz nahiçan, bekhatutan hain
Barna sar gintiçen, ondorat gure bitario-
urrikia Cotrotago içan Cadin; nork daki
ez duenetz nahiçan, bici hain gaichto bat
has ginençan, ondorat sainduago bat ereman
ginezan; nork daki ez duenetz nahiçan,
onthasun falxuez baicen escaintzen
ez daucun mundu hau hambat maitha
ginençan, gerorat gure bihotzac, hura
choilki onthasun egiazcoen ithurburua
dena maithatzeco. bai, g.a., egun Salvatz-
ailleac bere heiya eurten du eta bere artha-
Idea, gu Salvamenduco bide Çuçenerat
erimaiteco, eta gu ardi harren ganic
urrunduac biltzeco; bere ganat deitzen,
gaitu, erakeritzen, hersten, aguintzaz, meh-
achuz, ongi-eginez, beraz, bere graciaz,
barnera mintzatuz, bere aingeruez, bere
apheziez; egortzen daizkigun eritasunac,
axecabeac, gurutzeac, hauçu makhurrac,
hambat ere ohi min dira harren aldetic,
harren ganat guaçila erraiten dauciutenac.
Cer egin behar dugu beraz onthasun hain
handiez iberdesteco, ah! erraitea jeremias
profetarekin, ahos baino, bihotzez gehiago:
huna non naicen, ene jauna, Çure ganat
itzultzen naiz, ecen Çu Cira ene jainco
jauna; eçagutzen dut orai, nic maithatu
ditudanac ez direla gueçurrac baicic;
eçagutzen dut, ez dela Çu baicic ene

Corona egin deçaquiyonic; edo eroikeri
deçagun errege profetarekin, gutaz
urrikaltzapen içan deçala, borha ditzan
gure bekhatuac, hetaric geroago gehiago
garbi gaitzala, gu baithan bihotz garbi
eta Çucen bat sor deçala, ez gaitzala gabeaz
bere espirituaz, bainan hartaz borthiza-
zaz gaitzala. horrela eginez, harren ardi-
maiten heyan sartzea mereçituco dugu,
Ceruco bazketan bakhatzea eta saindueki
gure bihurçundeaz alegeratzeco bethie
Secula guçian

Amen